

# Hirigintzaz bezainbeste indarkeriaz

nteres politiko oinarritzakoa jabetze pribatuaren balioen defentsa denean, jabetze pribatuaren interesek gidatzen dituzte botere erakundeak; baita erakundeok publikoak badira ere. “Udalari dagokiona da eraiste baimena eskatzen denean baimen hori ematea, hori ez da aukerakoa. (...) bestela prebarikazioa litzateke” (epailearen susmoa bestelakoa den arren). Eta hala, Kortxoeneako auzia “partikularren arteko zerbait” bilakatzen da. Kultura zinegotzi Miren Azkarateren hitzak dira. Espekulatzailen praktika mafiosoak bezainbeste izutzen du erakunde publikoek praktiki eman dioten babesak. Demokrazia-aren kontraesanik latzena ekonomikoa da; beldurra, berriz, kulturarena.

Hustu. Eraitsi. Eraiki. Espazioa eta bere ekoizpena, munduko ekonomiaren azken hedapen zikloan jardura gakoa izan dira. Bestela esanda, kapitalismo globala espazioaren ekoizpen eta suntsiketa prozesuaren bidez ahalegindu da berezko dituen kontraesanak gainditzen. Eta hegemoniaren abaroan saiatzen den kontsentsuak bezain beste ezaugarritzen du indarkeriak hirigintza neoliberalak. Txanpon beraren ifrentzua.

Espazioaren jabetza eskuratzeko suntsikorra eta asimetrikoa den borroka-dinamikak bere baitan dakartza gatazkak, kontraesanak, eta gainditu ezinezko interesen norgehiagokak. Indarkeriak zorrotz aldarazi du populazioaren jokabidea, eta ondorioz, hiria ulertu eta egiteko moduak ere aldatu dira. Indarkeriak harreman sozialen haustura ezarri du. Lurralde eta formak estratifikatu ditu, muga material eta birtualak gauzatu; identitate, klase nahiz genero gatazkak ber-ezaugarrituz. Izuaren estetika bir-diseinaturiko hirietan bizi gara. Beldurra are handiagoa izan, orduan eta zatikatuago sozietatea. Eta zatikaturiko hiria erraz menderatuko du izuak. Ez da indarkeria



Markel Ormazabal

IDAZLEA

Kortxoenea Gaztetxearen kaleratzean jazotako indarkeria, baina, esplizitu eta agerikoa da. Zalantzarik sortzen ez duena, forma eta moduengatik berria izan arren inguruotan. Seul, Delhi, Shangai, Pekin, Londres, Madril, Bartzelona... eta orain, baita Donostia ere

oro, ordea, halakotzat onartzen. Balizko kriminalitatearen gorakadaren ondorio den segurtasun eskari baztertzaila eta orokortuan dugula arreta, ezkutaturik edo zokoraturik hedatzen dira zatiketa, segregazioa, gentrifikazioa, lurraldearen jabetze espekulatioa, ingurugi-

roaren degradazioa... Alegia, auzoan eraikin berria altxa eta, biharamunean kafea nahiz alokairuak gora egin duela leku aldatu behar izatea, indarkeria daiteke.

Kortxoenea Gaztetxearen kaleratzean jazotako indarkeria, baina, esplizitu eta agerikoa da. Zalantzarik sortzen ez duena, forma eta moduengatik berria izan arren inguruotan. Seul, Delhi, Shangai, Pekin, Londres, Madril, Bartzelona... eta orain, baita Donostia ere. Kultur alternatibo eta autoeratuaren ikur bilakaturiko eraikinaren eraistearen ondotik, agintariak hain gogoko duten mundu mailako zerrenda horietako batean sartu da Donostia. Hirigintza eremuko espekulazio-kontuetan, *ukabil-amerikar* eta burdin-makilekin egiten den indarkeriaren kultura estreinatuta duten hirien zerrendan, hain zuzen ere. Berriki, *Academy of Urbanism*-Hirigintzako Akademiak ematen duen Europako hirigintza sari bat irabazi du Donostiak. Epaimahaiak hiriko jardunbide onen adibideak ebaluatzen ditu hainbat arlotan, hala nola: lidergo eta gobernamendua, erkidegoa, ongizatea eta ikasteko ahalmena. Eta ikasi dugu bai gure *Donostia School of Medicine* propio honetan. Kaleratze agindurik lortu ez duen enpresariak kosta hala kosta eraitsi asmo duen eraikina husteko soldatapeko asaltanteak kontratatzea, urruneko kontua zitzaigun; nahiz eta antzemanak ziren halako praktikak: Bilboko *Maison 13* etxe okupatuan lehenik (2014), eta Donostian bertan *Itsas Gain* gune sozial okupatuan gero (2015). Irakurlea ohar bedi, ez gara segurtasun enpresa pribatuko langileez ari; diru truke urkoa jipoitzeko prest den uniformerik gabeko gizon usteko koadrilaz baizik. Soilik diruaren meneko, ordaintzailea autoritate bakar. Halakoek ebatsi dute, *Kulturaren Hiri-buruan*, kultura berari buruzko auzia. ■